

Hau al da aldaketa lasaia?

Steilasko kideek kezkatu agertu ginen lehendakariak aldaketa izendatzeko erabili zuen hitzarekin: lasaia. Pentsatzekoa da ez zituela baliatu nahi “goitik beherakoa” edo “errotikoa” bezalako esamoldeak, zenbait jende ez aztoratzeko. Baina beldur ginen aldaketa “lasaiak” dena bere horretan ez ote zuen utziko.

Eta, dirudienez, gure beldurrek bazuten oinarria eta funtsa.

Hori berresten du Juan Ramón Elorz Hezkuntzako zuzendari nagusi izendatu izanak.

Lehengo kontseilariak hasitako bi buruko eskema negargarriari eutsi nahi dio Mendozak. Gainera, giza baliabideen arduradun izendatu du Ikuskapen Zerbitzuko zuzendari ohia, azken urteetako mozketan galgarrietan erantzukizun larria izan duena, alegia.

Ez gaude batere ados erabaki horrekin eta eskatzen dugu berehala atzera botatzea izendapena. Hezkuntzako langile funtzionarioen artean badira asko eta asko hagitz ongi jantziak lan horretarako. Utikan aurreko gobernuen erabaki lazarrietan zain eta muin parte hartu dutenak!

